

## 'Euskal Herriko animaliak', oso gutxitan erakutsi dizkiguten bezala

Asier Gorostidik eta Igor Sarraldek zorrotzasun zientifikoa, irakurketa entretenigarria eta edertasuna lotu dituzte

### N. AZURMENDI

DONOSTIA. Animaliei buruzko liburu ilustratuak klasikoak dira. Fauna ezagutzeko ezinbestekoak ziren, hain zuzen, nahi ahala argazki eta bideotara segundo batean iristea ezinezkoa zenean.

Gaur egun ere ugariak dira horrelako liburuak, baina errazago aurkituko ditugu animalia exoti-

koen ingurukoak Euskal Herrikoak jasotzen dituztenak baino.

Hutsune hori bete nahi izan dute Asier Gorostidik eta Igor Sarraldek 'Euskal Herriko animaliak' albumarekin. Ereinek argitaratu duen liburuan, gainera, lortu dute zorrotzasun zientifikoa, edertasuna eta dibulgazio entretenigarria uztartzea.

Arrainak kanpoan utzita, ornodunei erreparatu diete, eta horien klaseetan oinarrituta banatu dute liburua ataletan: ugaztunek eta hegaztiak atal bana dute, eta atal bera partekatzen dute narrastiek eta anfibioek. Orrialdeak, berriz, ordenaren arabera bana-

tuta daude: intsektujaleak, karraskariak, harrapariak, musker eta sugandilak eta beste hainbat...

Ez daude Euskal Herrian aurki daitezkeen animalia guztiak, 50 adierazgarrienak baizik, horiek ezagutaraztea baita lanaren xede nagusietako bat. Egileek aurkez-

### EUSKAK HERRIKO ANIMALIAK ASIER GOROSTIDI IGOR SARRALDE

Argitaletxea: Erein.  
Bilduma: Albuma.  
Orri kopurua: 72.  
Salneurria: 20 euro.



penean esan zutenez –Donostian zen Asier Gorostidi, Bartzelonatu hitz egin zuen Igor Sarraldek– «gazela bat eta ñu bat bereizten ditugun era berean orkatza eta oreina bereizteko gai al gara?».

Liburua ondo irakurri eta begiratu gero, bai. Zeren eta tetsua eta irudia ezin baitira bereizi; arreta bera eskaini behar zaie informazio asko emateko leerro gutxi behar dituzten testuei zein marrazki zehatz eta liluragarri.

Hurrei eta helduei zuzendutako liburu irakurterraz eta erakargarria egiten saiatu dira, eta lortu dute, ezagutza hedatuz «natura maitatzea eta errespetatzea» lortuko dutelakoan. Jakinmina piztu nahi izan dute, halaber, eta horretarako atal bakoitzaren amaieran bertan agertzen diren animaliak topatu nahi izanez gero kontuan izan behar diren arrastoak zerrendatu dituzte.

mas de salud– o en protesta por una historia de agravios. Lo hicieron convencidos de que Biden es comunista, Merkel, la hija de Hitler y Hillary Clinton, la líder de una secta de satanistas pedófilos que quiere dominar el mundo.

Los sesudos tratados sobre hillbillies, rednecks y white trash me gustan tanto como a cualquiera, pero quizás todo arranque en una verdad sencilla: los mentecatos existen. En cualquier época los hubo, pero ahora están organizados, siempre en torno a una especie de millonario. No es una hipótesis seductora porque se agota en sí misma y todo el mundo aspira a enfrentarse a genios del mal en lugar de a tarados, pero habría que empezar a tenerla en cuenta. Es la hora de los lelos y de su venganza.